

## EUSKARA INGURUNE DIGITALEAN

## INFORMAZIO OROKORRA

Ikastaroaren data heltzen denean, osasun egoeragatik aurrez aurreko saioak emateko arazoak baldin badaude, Zoom edo Teams bidez emango dira.

<b>EGUNAK</b>	Azaroak 8-10-15-17	<b>IKASGELA/ TOKIA</b>	Bilboko IVAP Informatika gela Rekalde zumarkalea, 18 Bilbo
<b>IRAUPENA</b>	20 ordu	<b>ORDUTEGIA</b>	09:00 - 14:00
<b>ESKATZEKO AZKEN EGUNA</b>	Urriak 20	<b>ONIRITZI EPEA</b>	Urriak 21-27
<b>IKASLE KOPURUA</b>	10 gehienez	<b>NORENTZAT</b>	EAEko herri-Administrazioetako langileentzat
<b>IRAKASLEA</b>	Maite Goñi		

## ZER LORTU NAHI DA

**HELBURU  
OROKORRAK**

Eguneroko jardunean eraginkorrago lan egiteko ingurune digitalak eskaintzen dituen baliabideak ezagutzea eta erabiltzen ikastea. Garrantzitsua da baliabide horiek nork bere egitea eta norberaren beharren baitan erabiltzea; nork bere ikas-alorra eta ingurune digitala aberastea eta estrategiak garatzea.

**HELBURU  
ZEHATZAK**

Ingurune digitalean informazioa kudeatzen ikastea.  
Bideo tutorialak, infografiak, aurkezpenak... egiten ikastea.  
Euskararekin lotutako aplikazioak erabiltzen ikastea (itzultzaileak, testu laburtzaileak).

## PROGRAMA ETA EBALUAZIOA

**METODOLOGIA**

Ikastaroa aurrez aurrekoa izango da eta ikasleen benetako lan-jardun eta eguneroko beharretatik abiatuko dira zereginak. Teoria eta praktika uztartuko badira ere, praktika izango da ikastaroaren ardatz metodologikoa. Funtsean, eginez ikasiko dute ikasleek.

**PROGRAMA**

1. SAIOA: INFORMAZIOAREN KUDEAKETA I:
  - a. Eguneroko jardunari lotutako informazio-beharrak identifikatzea eta ingurune digitalean modu antolatuan adieraztea.
  - b. Datu eta eduki garrantzitsuak ingurune digitalean aurkitzea, bilaketa erraz zein aurreratuen bidez.
  - c. Eguneroko jardunari lotutako bilaketa estrategiak identifikatzea



## EUSKARA INGURUNE DIGITALEAN

eta sortzea ingurune digitalean.

- d. Eguneroko jarduna eraginkorrako egiteko nabigatzaileek eskaintzen dituzten personalizazio konfigurazio aukerak ezagutaraziko dira eta nabigatzailea norberaren beharren baitan konfiguratzeko jarraibideak eskainiko dira.
  - e. Eguneroko jardunari lotutako sareko datu, informazio eta eduki digitalen fidagarritasuna eta seriotasuna kritikoki aztertzea eta ebaluatzea.
2. SAIOA: INFORMAZIOAREN KUDEAKETA II
    - a. Sareko edukietan topa ditzakegun egile-eskubide eta lizentzia-mota ezberdinak ezagutzea eta eduki horiek lizentzia motaren arabera nola erabil eta berrerabil ditzakegun jakitea.
    - b. Sarean topatutako datuak, informazioa eta eduki digitala antolatzen, biltegitratzen eta berreskuratzen jakitea.
  3. SAIOA: EDUKIEN SORKUNTZA
    - a. Bideotutorialak, infografiak, aurkezpenak... ekoizten ikastea.
    - b. Aukera horiek baliatuz ekoizpen batzuk sortzea.
  4. SAIOA: ETENGABE IKASTEN JARRAITZEKO NORBERAREN IKAS-ALORRAREN GARAPENA
    - a. Norberaren Ikas-alorraz gogoeta egitea eta hura etengabe nola elika daitekeen jakitea.
    - b. Norberaren abiapuntuaz diagnosis egitea.
    - c. Euskaraz modu eraginkorrakoan lan egiteko baliabideak ezagutzea (itzultzaileak, testu laburtzaileak, testu idatzitik ahotsera pasatzeko tresnak, ahotsa transkribatzeko tresnak...

### EBALUAZIKOA

Ebaluazioaren helburua: ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete direla bermatzea.

### IKASTAROAREN BALORAZIOA

Ikasleek asebetetze-inkesta beteko dute.  
Irakasleak balorazio-inkesta osatuko du.

### APROBETXAMENDUA

%80ko bertaratzea eta eskoletan proposatzen diren arketak egin izana

### ZIURTAGIRI DIGITALA

Ziurtagiri digitala eskuragarri izango duzu posta elektronikoan jakinarazpena jasotzen duzunik aurrera. *IVAPeko izapideak / Ziurtatzeak* atalean sartu.

### BAJA EMATEKO EPEMUGA

Ikastaroa hasi aurreko azken laneguna.

186 €

### PREZIOA

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.  
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.

